

PATUAREN ZURRUNBILOAN – IKER G. RIKE



SINOPSISIA:

Asier Escribanok den-dena dauka bizitzan, baina gehiago nahi du. Boterea eta prestigioa eskuratzeko grinak bultzatuta, edozer egiteko prest dago bere helburua lortzeko. Ondorioak neurtu gabe, bide korapilatsu eta beldurgarrietan barrena abiatuko da, bere burua hainbat egintza kriminaletan nahasita ikusi arte. Apurka-apurka, kosta ahala kosta saihesten ahalegindu zen zorigaitzoko patura hurbilduko da. Iker Garciak trama konplexu baten alde egiten du bere estreinako literatura lanean. Eleberri beltz bat da, eta irakurleok istorioan erabat murgilarazten gaitu, Asier Escribanoren urratsei adi, ondoren zer gertatuko zain. Hala, tentsio handiko uneak eta lasaialdi txikiak txandakatzen dira. Esaldi batean protagonistaren egoerari konponbide bat aurkitzeko itzaropena pizten du gugan, eta hurrengoan, aldiz, amaiera zoriontsu baterako aukera guztiak zapuzten dizkigu berriz.